



2024ko ZEZEN-IKUSKIZUNAK

FESTEJOS TAURINOS 2024

Eduardo García Elosua

Urtero bezala, 2024ko zezen-ikuskitan bi entziero egin ziren, abuztuaren 16an eta 18an, arratsaldean toreatu behar ziren zezenekin; bi nobilada pikatzailerik gabe, aipatu egunetako arratsaldetan; “Mariñel Egune” entzierroa; errektariak zezen-plazan eta enbolatuak. Gainera, abuztuaren 13an, Puerto de San Lorenzoko eta Ventana del Puertoko zezenkoak zezen-plazan aurkeztu ziren eta, beste urte batez, Salamancako Tamames herritik etorritakoekin entzierrotxo egin zen, plazatik Osio ukuiluraino; jende askok jarraitu zuen ekitaldia ibilbide osoan zehar.

Zezenketak

Ikuskizunen antolaketa-maila oso ona izan zen, eta ohi bezala, zezenketen garapen zuzena bermatzen duen lantaldeak egoki bete zituen zeregin guztiak: torilerok, mandazainek, plazako langileek, artzainek, aguaziltxoak eta, nola ez, musika bandak eta Lizarrako gaiterok.

Luis Mari Pastor izan zen aholkulari artistikoa bi nobiladetan, eta **Asier Alvite** albaitari-aholkularia. Urtero bezala, agintarien bakoian, Salamancako Puerto de San Lorenzoko eta Ventana del Puertoko ganadutegiko ordezkariak egon ziren, **Lucía Fraile Maceín** eta bere senarra **Carlos Sánchez Barbero**.

Abuztuaren 16ko nobillada, San Roke eguna

Egun euritsua izan zen arren, zaleek bikain erantzun zuten eta plaza bete zen. Ventana del Puertoko nobillada exigentea izan zen, ongi aurkeztutako lau zezenek portaera eta joko desberdina erakutsi zuten. Nota ona lehenarentzat, herrestan txaloak jaso zituen. Mantsoa eta iheskorra bigarrena, hala ere, eskuineko adar interesgarri eta probetxugarria zeukan. Hirugarrena, mantsoa eta pase ugariarekin, herrestan txalotua izan zen, eta laugarrena, zezen ona, bi adarretatik umiltzen zen, eta eraso zintzoak egin zituen.

Como cada año, los festejos taurinos de 2024 consistieron en la celebración de dos encierros, los días 16 y 18 de agosto, con los novillos que se lidiaban por la tarde; dos novilladas sin picadores por la tarde de los mismos días; el encierro del “Mariñel Eguna”; recortadores en la plaza de toros y suelta de vaquillas. Además, el día 13 de agosto tuvo lugar en la Plaza de Toros el desembarque de los novillos del Puerto de San Lorenzo y la Ventana del Puerto, procedentes del pueblo salmantino de Tamames, y el encierro con los ocho erales, desde la plaza hasta los corrales de Osio que, un año más, fue seguido por numeroso público situado en distintos lugares del recorrido.

Las novilladas

La organización de los festejos estuvo a muy buena altura y, como es costumbre, cumplieron con solvencia todos los que intervienen para garantizar el buen desarrollo de las novilladas: torileros, mulilleros, personal de la plaza, pastores, alguacilillo y, cómo no, la banda de música y los gaiteros de Estella.

Luis Mari Pastor ejerció las tareas de asesor artístico-taurino en las dos novilladas y **Asier Alvite** fue la persona que desempeñó las funciones de asesor veterinario. Como cada año, en el balcón de autoridades, hubo una representación de la ganadería salmantina del Puerto de San Lorenzo y la Ventana del Puerto, este año con la presencia de **Lucía Fraile Maceín** junto a su marido **Carlos Sánchez Barbero**.

Novillada del 16 de agosto, día de San Roque

A pesar de que amaneció un día lluvioso, la afición respondió llenando la plaza. Se lidió una exigente novillada de la Ventana del Puerto, con cuatro novillos bien presentados de comportamiento y juego dispares. De buena nota el primero que fue aplaudido en el arrastre. Manso y huidizo el segundo que, sin embargo, tuvo un pitón derecho interesante y aprovechable. Manso con muchos pases el tercero que fue aplaudido en el arrastre y buen novillo el cuarto que humilló por los dos pitones y tuvo nobles embestidas.

Rosa Galarraga izan zen nobilladako lehendakaria, eta ezin hobeto bete zuen bere lana.

Banda berandu iritsi zen plazara, eta ikuskizuna atzerapenarekin hasi zen.

Maiatzean Bergarara gaita jotzera joan eta bertan zendu zen **Salvador Martínez** gaitajotzailea oroitu nahi izan zen. Goizean, entzierroa baino lehen egiten den diana hasi aurretik, gazte talde handi batek minutu bateko isilune hunkigarria eta deigarria gorde zuen; arratsaldean, **Juan Carlos, Argider** eta **Andoni** gaiteroak plazan esertzera joan zirenean, ikusleek zutitu eta txalo zaparrada luze eta sentitua eskaini zieten Salvaren oroimenez.

Francisco Benito. Madrilgo Aranda del Reykoa. José Cubero “Yiyo” Madrilgo zezen-eskolako ikaslea. Arrosaz eta azabatxez. Isiltasuna lehenengoan, eta txalo zaparrada hirugarrenean. Bere lehen zezenkoan, ikusleei eskaini zien faena, ondo toreatu zuen kapotearekin eta muletarekin erakutsi zuen ondo ibiltzen zekiela, bereziki belau-niko egin zuen torero-harrera batean, eta eskuineko adarretik emandako bi serietan. Sekulako harrapaketa jasan zuen, baina ez zuen ondoriorik izan. Aitzitik, oso gaizki aritu zen ezpatarekin, zezena ezpatakada erdi batekin eta deskabelloarekin hil zuen, bost ziztada sartu ondoren. Bi abisu jaso zituen.

Bigarren zezena ere ikusleei eskaini zien, zezen mantsoa eta konplexua izan zen. Ezkerreko adarra ona zuen, baina eskuinekoa oso zaila. Ez zuen distirarik lortu ez kapotearekin ez muletarekin. Altzairuarekin zituen ga-beziak erakutsi zituen berriro ere, eta estokada etzan batez hil zuen, hainbat ziztada sartu ondoren.

Manuel Quintana. Kordobakoa. Kordobako zezen-eskolakoa. Gorri-morez eta urrez. Belarri bat lehenengoan, eta plazari bira bigarrenean. Antonio Tejero zilarrezko toreatzaile ezaguna da bere ahalduna. Etorbizun handiko nobilleroa eta “Kordobako toreo-itxaropen berria” zela-koan etorri zen Debara.



Francisco Benito

Presidió la novillada **Rosa Galarraga**, que cumplió perfectamente con su función.

La banda entró tarde en la plaza por lo que el festejo comenzó con retraso.

Se recordó la figura del gaitero **Salvador Martínez** fallecido el mes de mayo en Bergara en acto de servicio. Si por la mañana, al inicio de la diana previa al encierro, se guardó un impresionante y llamativo minuto de silencio por una gran multitud de personas jóvenes; por la tarde, cuando fueron a ocupar sus asientos en la plaza los gaiteros **Juan Carlos, Argider** y **Andoni**, el público puesto en pie, les tributó una larguísima y sentida ovación en emotivo recuerdo a Salva.

Francisco Benito. De la localidad madrileña de Aranda del Rey. Alumno de la Escuela de tauromaquia José Cubero “Yiyo” de Madrid. De rosa y azabache. Silencio en su primero y ovación en el 3º de la tarde. En su primer novillo, que brindó al público, toreó bien con el capote y mostró muy buenas maneras con la muleta, especialmente en un saludo genuflexo muy torero y en dos series por el pitón derecho. Sufrió una aparatosa cogida sin consecuencias. Por el contrario, estuvo muy mal con la espada matando al novillo con media estocada y descabello después de cinco pinchazos previos. Recibió dos avisos.

En su segundo eral, que brindó también al público, un manso difícil, con un buen pitón izquierdo pero muy complicado por el derecho, no brilló ni con el capote ni con la muleta. Volvió a mostrar sus carencias con el acero y mató de una estocada tendida después de varios pinchazos.

Manuel Quintana. De Córdoba. De la Escuela Taurina de Córdoba. De burdeos y oro. Una oreja en su primero y vuelta en su segundo. Su apoderado es el conocido torero de plata Antonio Tejero. Llegó a Deba como un novillero con mucho futuro y “como la nueva esperanza del toreo cordobés”.



Manuel Quintana



Bere lehenengoa ikusleei eskaini zien. Zezen otzana, latza, banderillak sartzeko oso zaila, eta oso gaizki toreatua. Faena interesgarria burutu zuen, kalitate handiko xehetasunekin, eskuineko adarretik bi txanda bikainetan nabarmendu zen, baita toreo-kutsu handiz bi eskuekin emandako goi-pase batzuetan eta bular erremate handian ere. Leku onean sartutako ezpatakada erdiz hil zuen, eta arratsaldeko belarri bakarra eman zioten.

Bere sortako bigarrena arratsaldeko zezen onena izan zen, eta musika bandari eskaini zion. Eskuineko adarretik nabarmendu zen berririo. Birritan galdu zituen armak, eta molinete estu batzuekin amaitu zuen lana. Ezpatakada aurreratu eta zeharkatu bat sartuta eta deskabelloa bitan erabiltza hil zuen zezena. Gutxi eskatu zuten belarria. Plazari bira eman zion.

Salamancako zezen-eskolako **Pablo Sánchez Jaramillo** izan zen sobresaliente. Arratsaldeko hirugarrenean eta laugarrenean egindako kiteetan nabarmendu zen.

18ko zezenketa

Plazaren hiru laurdena bete zen. Nobilladaren lehendakaria **Josema Esnaola** izan zen, herriko zezen-zale zintzoari egokitu zitzaion lana. Urte askotan zehar, Debako zezenketen antolakuntzan laguntzaile izandakoak arazorik gabe bete zuen bere eginkizuna.

Puerto de San Lorenzo ganadutegiko lau zezen toreatu ziren. Itxura eta portaera desberdina erakutsi zuten. Lehena, otzana eta iheskorra. Bigarrena, zekor ona, bi adarretatik maila erakutsiz oldartzen zen. Hirugarrena indar gutxikoa zen, eta aske egiten zuen alde. Laugarrena zezen bikaina izan zen, ikusleek asko txalotu zuten herrestan.



Julio Méndez

En su primero, que brindó al público, un novillo manso, áspero, muy complicado de banderillar y que estuvo pésimamente lidiado, cuajó una interesante faena con detalles de gran calidad, luciéndose en dos excelentes tandas por el pitón derecho y unos ayudados por alto con mucha torería y un gran remate de pecho. Mató de media estocada en buen sitio y se le concedió la única oreja de la tarde.

En el segundo de su lote brindó a la banda de música. Volvió a destacar su toreo por el pitón derecho al que fue el mejor novillo de la tarde. Fue desarmado en un par de ocasiones y acabó la faena con unos ajustados molinetes. Mató de una estocada delantera y atravesada y necesitó dos descabellos. Petición de oreja minoritaria. Dio la vuelta al ruedo.

Pablo Sánchez Jaramillo, de la escuela taurina de Salamanca, fue el sobresaliente. Se lució en los quites que realizó al tercero y cuarto de la tarde.

Novillada del día 18

Tres cuartos de entrada. La presidencia de la novillada recayó en el buen aficionado debarra y, durante muchos años, asiduo colaborador en la organización de los festejos taurinos de Deba, **Josema Esnaola**, que cumplió con su cometido sin problemas.

Se lidiaron cuatro erales de la ganadería del Puerto de San Lorenzo. De diferentes hechuras y comportamiento. El primero, manso y huidizo. Buen novillo el segundo, que embistió con clase por los dos pitones. El tercero tuvo poca fuerza y salía suelto y el cuarto fue un excelente novillo muy aplaudido por el público en el arrastre.

Julio Méndez. De la localidad abulense de Arenas de San Pedro. Alumno de la Escuela Taurina de Badajoz. De berenjena y azabache. Saludos desde el tercio en su primer novillo y silencio tras dos avisos en el segundo. Le apodera el maestro Ortega Cano. Venía de un gran año 2024 al triunfar en el Zapato de Plata de Arnedo, en el Certamen "Kilómetro Cero" de Vista Alegre, ser finalista del Bolsín Taurino de Ciudad Rodrigo y de una novillada en Dax. Compareció con la mano derecha vendada por una lesión que le impidió realizar de forma correcta la suerte de matar.

En el primer eral, que brindó al público, destacó con el toreo por verónicas y en un par de tandas por el pitón derecho a un novillo huidizo que dio síntomas de mansedumbre y que no le dio facilidades. Mató de una estocada trasera.

Julio Méndez. Avilako Arenas de San Pedro herrikoa. Badajozeko zezen-eskolako ikaslea. Alberjiniatz eta azabatez. Agurra harmailen ondotik bere lehen zezenkoan eta isiltasuna bigarreanean, bi abisu jaso ondoren. Ortega Cano maisuak ahalduz du. 2024ko urte handi batetik zetorren, garaile izan baitzen Arnedoko “Zapato de Plata” eta Vista Alegreko “Kilometro Zero” lehiaketetan, eta finalera heldu zen Ciudad Rodrigoko “Bolsín taurino”n eta baita Akizeko nobillada batean ere. Eskuin eskua bendatuta zuela agertu zen, lesio baten ondorioz, eta ezin izan zuen hiltzeko lantzea behar bezala burutu.

Lehen zezenkoa ikusleei eskaini zien; beronikak toreatzean eta eskuin adarretik eman zituen pare bat txandetan nabarmendu zen. Zezen iheskorra eta otzantasun zantzuekin ez zion erraztasunik eman. Atzeko ezpatakada batez hil zuen.

Arratsaldeko hirugarrenean, bere sortako bigarreanean, berriro nabarmendu zen kapotearekin beronikak toreatuz, beronika-erdi on batekin eta farol batekin errematatuz. Jendeari eskaini zion, eta nobillero papera betebetean betez, zezenkoaren gainetik egon zen. Borondate handia jarri zuen bere jardunean, toreatzaile izan nahi duela erakutsiz. Gaizki hiltzeko lantzean, lau ziztada eman zizkion atzeko ezpatakada bat sartu aurretik.

Diego Mateos salamancarra eta Salamancako zezen-eskolako ikaslea. Arrosaz eta urrez. Isiltasuna lehenengoan, abisua jaso eta gero, eta belarri bat bigarreanean. Zozketan zortea alde izan zuen, arratsaldeko sorta onena egokitu baitzitzaion. Ciudad Rodrigoko 2024ko Bolsín Taurinoko irabazle izatearen sonarekin etorri zen, eta bertako inauteri astearteko ikuskizun mistoan zezenkoaren bi belarriak moztuta garaile zela.

Lehenbizikoa zezen ona izan zen, oso gaizki toreatua. Banderillekin gorabehera bat egon zen, bere kuadrillako zilarrezko toreatzaile baten gaitasun falta nabaria ikusita (horrelako ikuskizun baterako oso itxura desagokiarekin aurkeztu zen), sobresalienteak lagundu behar izan ziren kuadrillakoei banderillen lantzean. Muletalanean txanda ederrak eman zituen bi adarretatik. Estokada-erdi zeharkatu baten ondoren, deskabelloarekin luzatu zen, saria galduz.

Bere bigarren zezenkoan ez zuen kapotearekin distirarik lortu. Aurreko zezenean bezala, banderillekin gertatutakoa errepikatu zen. Belauniko hasi zuen faena, mugitu gabe eta sakon toreatuz. Gero goi-paseak eman zituen patxada handiz. Zezenak kasta, finkotasuna eta nobilleroaren muletan ibilbidea erakutsi zituen, flanela aurretik botata serie onak eman zituen eskuineko adarretik, eta ezkerretik toreoaren goi-mailetara iritsi zen bi serie handitan. Aurreko ezpatakada batekin eta deskabelloa hirtan erabilita hil zuen.

Sobresaliente lanetan Salamancako eskolako **Andrés Sánchez Galán** aritu zen, 2023ko nobilladetan ere izan genuen. Egin zituen kiteetan nabarmendu zen, eta, esan bezala, banderillero lanetan aritu zen Diego Mateosen bi zezenetan.

Kontrataturako nobilleroen kalitatea kontuan harturik, zezen-ikuskizunen maila ez zen izan espero zena.



En el tercero de la tarde, segundo de su lote, volvió a destacar con el capote toreando a la verónica, rematando con una buena media y un farol. Brindó al público y estuvo en novillero y por encima del novillo que apenas tuvo recorrido. Puso mucha voluntad en su actuación demostrando que quiere ser torero. Mal matando, pinchando hasta en cuatro ocasiones antes de cobrar una estocada trasera.

Diego Mateos. Salmantino y alumno de la Escuela taurina de Salamanca. De rosa y oro. Silencio tras aviso en su primero y una oreja en el segundo. El sorteo fue generoso con él ya que le tocó el mejor lote de la tarde. Se presentó con la aureola de ganador del Bolsín Taurino de Ciudad Rodrigo 2024 y como triunfador del festejo mixto de Ciudad Rodrigo del martes de Carnaval, corriendo las dos orejas del novillo que pasaportó.

El primero de sus erales fue un buen novillo muy mal lidiado. Se dio la curiosidad que, ante la evidente incapacidad para hacerlo de uno de los toreros de plata de su cuadrilla, que se presentó en la plaza con un aspecto físico impropio para un espectáculo de esta naturaleza, fue el sobresaliente del festejo el que ayudó a la cuadrilla en el tercio de banderillas. En la faena de muleta dio buenas tandas por ambos pitones. Después de media estocada atravesada se eternizó con el descabello perdiendo algún trofeo.

En su segundo novillo no brilló con el capote. Se repitió la escena de banderillas de su primer novillo. Comenzó la faena de rodillas sin moverse y toreando con profundidad. Luego dio unos pases por alto con mucha quietud. El eral mostró clase, fijeza y recorrido en la muleta del novillero que, con la franela por delante, dio buenas series por el pitón derecho y alcanzó cotas altas de toreo por el izquierdo en dos grandes series. Mató de estocada delantera y tres descabellos.

Actuó de sobresaliente **Andrés Sánchez Galán**, de la Escuela de Salamanca, que ya lo había hecho en las novilladas del año 2023. Destacó en los quites que realizó y, como se ha señalado, actuó como banderillero en los dos novillos de Diego Mateos.

Las novilladas no estuvieron a la altura de lo que se esperaba viendo la calidad de los novilleros contratados.